



Iurreta
Eleizateko Udala

IURRETA ÉLEIZATEKO
UDALA



AYUNTAMIENTO DE LA
ANTEIGLESIA DE IURRETA

2022 OTS. 22



Berdintasuna
Igualdad
Iurreta

Kaixo,

SARRERA	
Zkia. No	Zkia. No 298
ENTRADA	

Aurten ere, Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, emakumeen eskubideak lortzeko egindako hainbat ekintza eta borroka gogora ekarri eta aldarrikatu nahi ditugu.

Zalantzarik gabe, emakumeen elkarteek eta mugimendu feministak egindako ekintzak eta borrokak gabe, emakumeen bizitzako hainbat arlotan egindako aurrerapenak ez ziren posible izango.

Oraindik ere, mundu baketsu, oparo eta iraunkorra lortzeko, oinarrizko giza eskubidea beharrezkoa da; emakumeen eta gizonen arteko Berdintasuna.

Hori dela eta, urtarrilaren 31an Ibarretxe Kultur Etxean izandako Berdintasun Foroan, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko helburuarekin, herriko hezkuntza-esparruaren, elkarteen, norbanakoen, udalaren,.... **guztion indarrak batuz**, martxoaren 8rako (asteartea) KATE-MOREA ekintza egitea proposatu da.

Horregatik, herriko hezkuntza-esparruari ekimenean parte hartzeko gonbidapena bidaltzen zaizue. KATE-MOREAren ibilbidea eta luzera kalkulatu ahal izateko, eskertuko genizueke otsailaren 28rako parte hartzaileen kopurua hurrengo helbidera jakinaraztea: gizarte-ongizate@iurreta.eus.

Aipatutako giza-katea, KATE-MOREA, bi zatitan egingo da:

GOIZEKO KATE-MOREA: 11:45etatik 12:30etara ikastetxeetako ikasleak zinta morea eskuetan hartuta (distantzia mantentzeko eta kolorea emateko) katea osatzen hasiko dira.

Ikasleez gain, herri-gunera iristean beste pertsona batzuk ekimenera gehitzeko deialdia ere egingo da.

Maiztegiko ikasleei, eskola eremuan giza-katea osatzeko gonbidapena egin zaie. Giza-katea bukatutakoan, ikasleak ikastetxeetara itzuliko dira.

Ekimen bateratu honekin, goizeko eta arratsaldeko giza-kateak grabatuko dira, KATE-MOREA bideoa baten izateko eta sare-sozialetan eta Udaleko webgunean eskegitzeko eta zabaltzeko.

Bideoa argitaratzeko, gurasoen baimena behar da, datuak babesteko indarrean dagoen araudia betez. Udalak ez duenez adingabeei buruzko informaziorik, zuen laguntza behar dugu. Datuak babesteko araudia eta ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzko 1/1982 Lege Organikoa Iurretako Udalak bete ditzan, eredu bat erantsi dugu. Eskertuko genizueke familiei informazioa ematea eta bideoa argitaratzeko baimena eskatzea. Horretarako, honekin batera doan dokumentua helaraz diezaiekezue. Ezinbestekoa da bideoan agertzen den adingabeek behar bezalako baimena izatea. Ikastetxeak aldeztatik aipatutako baimena badu, ez da beharrezkoa izango baimen hori eskatzea.

* Bideoan agertu nahi ez dutenek aurpegia estaltzeko kartulinaren bat eramatea proposatuko da.

ARRATSALDEKO KATE-MOREA: Askondoko karpan 18:00etan ADIERAZPENAREN IRAKURKETA izango da eta honen ondoren, giza-katea osatuko da bertan bildu diren herritarrekin (herriko elkarteak, norbanakoak, udalak,...) karpantik hasi eta herriko kale nagusietatik luzatuz.

Edozein zalantza izanez gero, telefono honetara deitu dezakezue: 94 621 53 72 (Udala-Amaia).

Besterik gabe, zure laguntzaren esperoan, agur bero bat.

Iurretan, 2022ko otsailaren 21ean
Iñaki Totorikaguena Sarrionandia

Alkatea

